VICTORIA EUGENIA
Antzokia

DANTZARI LOTUTAKO AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUKO, BITARTEKARITZAKO, HEDAPENEKO ETA JARDUEREN PROPOSAMEN ETA KUDEAKETAKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKI BIDEZKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGU BEREZIA

AURKIBIDEA

1. **KONTRATUAREN XEDEA**
2. **LAN-METODOLOGIA**
3. **KOORDINATZAILEA**
4. **ZEHARKAKO PRINTZIPIOAK**

IFK-CIF A20965414

VICTORIA EUGENIA
Antzokia

DANTZARI LOTUTAKO AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUKO, BITARTEKARITZAKO, HEDAPENEKO ETA JARDUEREN PROPOSAMEN ETA KUDEAKETAKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKI BIDEZKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGU BEREZIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

1.1 Xedea eta kontratuaren helburua

Kontratuaren xedea da dantzarekin lotutako aholkularitza espezializatuko, bitartekaritzako, hedapeneko eta jardueren proposamen eta kudeaketako zerbitzuak ematea, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAren jardueraren barruan, bereziki Victoria Eugenia Antzokiarekin eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk zehazten dituen gainerako espazio, programa edo proiektuekin lotuta.

Zerbitzuaren helburua izango da dantzaren garapenean laguntzea, dantza VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAren jarduera-ildoetako bat den aldetik, programazioa, sorkuntza, publikoen sentsibilizazioa, prestakuntza, ekoizpena, egonaldi artistikoak, lankidetza profesionala eta kanpo-proiekzioa sustatuz.

Dagozkion CPV kodeak honako hauek dira:

- 79952100-3 Kultur ekitaldien antolaketa-zerbitzuak (Nagusia)
- 92312000-1 Zerbitzu artistikoak

1.2 Zerbitzuen deskribapen orokorra

Zerbitzuak honako prestazio hauek hartuko ditu barne:

a) Dantzaren programazioari lotutako jarduera osagarrien proposamena eta kudeaketa.

Kontratistaren enpresak dantzaren programazioari lotutako jarduera osagarrien proposamena, diseinua, ekoizpena eta/edo koordinazioa egingo du, publiko berrien sentsibilizazioa sustatzeko.

Jarduera osagarriak hiru hiruhileko operatibotan garatuko dira (negua, udaberria eta udazkena).

Horretarako, urtero uztailaren 15a baino lehen, Kontratuaren Arduradunari hurrengo urteko jardueren proposamena bidaliko dio; bertan jasoko dira, gutxienez, proposatutako jarduera bakoitzaren deskribapena, hura egingo duen konpainia edo profesionala, jardueraren iraupena, aurreikusitako datak eta aurrekontua.

Kontratistak egindako jarduera osagarrien proposamena aztertu eta egoki iritzitako aldaketak sartu ondoren, behin betiko proposamena onartu eta kontratistari jakinaraziko zaio.

b) Aholkularitza espezializatuko zerbitzua.

Dantzaren arloko aholkularitza espezializatua, barne hartuta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIArentzat interesgarriak diren prestakuntza, sentsibilizazio, artista, konpainia, proiektu eta sorkuntza koreografiko berrien identifikazioa eta proposamena.

c) Bitartekaritza-zerbitzua.

Dantzaren sektoreari lotutako konpainia, koreografo, jaialdi, antzoki, sare eta gainerako eragileekin harreman profesionalak sortzea eta erraztea.

d) Hedapen-zerbitzuak.

Dokumentazioa edo liburuxka espezifikoak nazioarteko izaerako hainbat jaialdi eta antzokitan hedatzeaz arduratuko da.

2. LAN-METODOLOGIA

Erakunde esleipendunak VICTORIA EUGENIA ANTZOKIArekin etengabeko koordinazioan garatuko du zerbitzua.

Enpresa esleipendunak antolaketa-autonomia izango du eta kontratua behar bezala gauzatzeko behar diren giza baliabideen erantzule izango da.

IFK-CIF A20965414

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk programazioaren eta jardueraren ildo orokorrak zehaztuko ditu; esleipendunari dagokio kontratuan ezartzen diren aholkularitza, proposamen, bitartekaritza eta exekuzio eginkizunak betetzea.

Esleipendunak urtero aurkeztu beharko ditu:

- Jarduketen plangintza orokorra, urtero uztailaren 15a baino lehen.
- Dantzari lotutako jardueren proposamenak, urtero uztailaren 15a baino lehen.
- Proiektu, artista eta joera garrantzitsuei buruzko aldizkako informazioa, erakunde kontratatzaileak eskatuta.
- Garatutako jardueren urteko memoria, erakunde kontratatzaileak eskatuta.
- Emaitzen balorazioa eta hobekuntza-proposamenak, urtero uztailaren 15a baino lehen.

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk, nolanahi ere, kontratuaren xede diren jardueren zuzendaritza eta gainbegiratzea mantenduko ditu, eta egoki iritzitako beste jarduera batzuk zuzenean edo hirugarrenen bidez antolatzeko ahalmena izango du.

3. KOORDINATZAILEA

Kontratistak koordinatzaile bat esleituko du kontratua gauzatzeko, eta honako eginkizun espezifiko hauek izango ditu:

- Kontratatutako zerbitzuen exekuzioa koordinatzea eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAtik jasotako jarraibideak praktikan jartzea.

- VICTORIA EUGENIA ANTZOKIArekin lankidetzan aritzea kontratuak iraun bitartean sor daitezkeen arazoak konpontzeko.

- VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk deitutako bileretan parte hartzea.

- VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk eskatzen dion antzeko beste edozein lan egitea.

- Zerbitzua euskaraz eta gaztelaniaz emateko gaitasuna bermatuko du.

Koordinatzaile hori izango da erakunde kontratatzaileek izendatutako kontratuaren arduradunarekin harreman zuzena izango duen pertsona bakarra.

Koordinazio-eginkizunetan pertsona berri bat izendatzeko, arrazoia edozein dela ere, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAren onespena beharko da.

4. ZEHARKAKO PRINTZIPIOAK

Kontratuaren xede diren prestazioak gauzatzean, zeharka txertatuko dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren, kultura-aniztasunaren, inklusioaren eta irisgarritasun unibertsalaren printzipioak.

Halaber, esleipendunak euskararen erabilera sustatuko du, bai zerbitzua ematean bai sortzen diren jarduera, material, txosten eta dokumentazioan.

Donostian, sinadura elektronikoan adierazitako egunean.

JOSE JAIME OTAMENDI MUÑAGORRI - 15986694S

Digitalki sinatuta norengandik: JOSE JAIME OTAMENDI MUÑAGORRI - 15986694S
Data: 2026.11.16 12:02:42 +01'00'

Jaime Otamendi Muñagorri
Victoria Eugenia Antzokia, SAko kudeatzailea

IFK-CIF A20965414